

NEKAZAL BIODIBERTSITATEAREN KUDEAKETA



Eskolako Agenda 21

Batxilergoa



Lan fitxa honekin batera bi dokumentu landu behar dituzue: Azpeitiko landa eremuaren analisi estatistikoa; eta Azpeitiko baserrien garapena (4. eta 5. atalak). Dokumentu horiek landuz, eta oro har lan fitxa honetan dauden galderei erantzunez (hau irekia da, talde bakoitzari otutzen zaizkion galderak gehitu ditzake) honako txostena eta proposamenak idatzi behar dituzue.

Azpeitiko landa eremuaren eta bertan dagoen biodibertsitatearen (nekazaritzaatik eratorria) babestu eta sustatzeko ekintza plana.

Txosten horretan lau atal nagusi agertu behar dute:

1. Diagnostikoa: bilakaera historikoa eta egungo egoera.
2. Lerro estrategikoak: zein diren landa eremuan biodibertsitatea sustatzeko estrategia ildoak.
3. Proposamenak: ekintza zehatzak eta lan ildoak.
4. Ondorioak: lan taldearen hausnarketa pertsonala, subjektiboa.

Oharra: atal hauek ez dute zertan izen horrekin egon behar, baina identifikagarriak izan behar dute.

NEKAZAL BIODIBERTSITATEAREN KUDEAKETA



Galderak:

Diagnostikorako:

Nola aldatu da nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi direnen errenta azken hamarkadetan? Zergatik?

Ustiapenak zein aldaketa jasan dituzte azken hamarkadetan azienda motaren edo laborearen arabera (nekazaritza edo abeltzaintza izan)? Zein ondorio atera daitezke aldaketa horretatik?

Oro har, nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboagoa da edo estentsiboagoa da? (azalera gutxiagoan ekoizpen handia edo azalera handia eta ekoizpen txikia)

Bilakaera sozioekonomikoa

Galdetu eta hausnartu: nola aldatu dira gure kontsumo ohiturak azken hamarkadetan? (Zuen DBHKO 1 eta 2 mailako ikaskideek aztertu dituzte ohitura hauek, datuak erabili ditzakezue)

Era berean, hausnartu erosketa/salmenta ohitura eta dinamiken bilakaeran. (Zuen DBHKO 1 eta 2 mailako ikaskideek aztertu dituzte ohitura hauek, datuak erabili ditzakezue)

Etorkizunari buruzko hausnarketa

Zein dira nekazaritza eta abeltzaintza sustatzeko indartu beharreko lerro estrategikoak? (adibidez, nekazaritza ekologikoa, nekazaritza intentsiboa, bioteknologiak, edo guztiz kontrakoak... hausnartu)

Zein dira alor honetan udal eskumenak?

Zein dira udaletxetik landu daitezkeen atalak? Zein modutan? Zein ekintzekin?

Batxilergoa

